



## Udaleko kirol-instalazioetako neurriak COVID-19agatik

Kontuan hartuta Gasteizek azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 400 kasutik gorako intzidentzia-tasa metatua gainditu duela eta COVID-19 pandemiagatik indarrean dauden neurriak, honako baldintzak bete behar dira Udalaren kirol-instalazioetan apirilaren 7tik aurrera:

### **Kirol Federatua**

- Kirol federatuko eta kirol profesionaleko entrenamenduak eta lehiaketak mantentzen dira.
- Nahitaezkoa da maskara erabiltzea. Salbuespenak kirol-instalazioetan: igerilekuetan, lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean murgilduta dauden taldeen entrenamenduetan, lehiaketetan, eta kanpoaldean egiten diren jarduera fisiko biziko aparteko uneetan.
- Dutzak eta aldagelak ezin dira erabili, igerilekuetan eta txapelketetan izan ezik. Salbuespen horietan, aldagelek gehieneko edukieraren % 35eko okupazioa izango dute eta dutzak erabili ahal izango dira, baldin eta banakakoak badira. Musukoa erabiltzea nahitaezkoa izango da etengabe, dutzatzeko unean izan ezik.

### **Eskola-kirola**

- Eskola-kiroleko entrenamenduak mantentzen dira. Barruko kirol-espazioetan ezin izango dira gainditu 4 pertsonako taldeak, eta kanpoko espazioetan, berriz, gehienez 6 pertsonako taldeak.
- Lehiaketak etenda daude oraindik.
- Nahitaezkoa da maskara erabiltzea. Salbuespenak kirol instalazioetan:
  - o Igerilekuetan.
  - o Kanpoaldean egiten diren jarduera fisiko biziko aparteko uneetan.
- Dutzak eta aldagelak ezin dira erabili, igerilekuetan izan ezik. Azken horietan, aldagelek gehieneko edukieraren % 35eko okupazioa izango dute eta dutzak erabili ahal izango dira, baldin eta banakakoak badira. Musukoa erabiltzea nahitaezkoa izango da etengabe, dutzatzeko unean izan ezik.

## Medidas en las instalaciones deportivas municipales ante la COVID-19

En cumplimiento de las restricciones actuales para hacer frente al avance de la pandemia por COVID-19, y tras haber superado Vitoria-Gasteiz la tasa de incidencia acumulada superior a 400 casos por cada 100.000 habitantes, las medidas a adoptar en las instalaciones deportivas municipales, a partir del 7 de abril, son las siguientes:

### **Deporte federado**

- Se mantienen los entrenamientos y las competiciones de deporte federado y de deporte profesional.
- Es preceptivo el uso de mascarilla. En instalaciones deportivas, únicamente queda exceptuado su uso en piscinas, en entrenamiento de equipos inmersos en competición profesional o semi-profesional, en competición y en los momentos extraordinarios de actividad física intensa en exteriores.
- No pueden utilizarse los vestuarios y duchas salvo en piscinas y en competiciones. En estas dos excepciones, se permite el uso de vestuarios con una ocupación del 35% de su aforo máximo y la utilización de duchas, siempre que sea individual. El uso de la mascarilla será obligatorio constantemente salvo en el momento de la ducha.

### **Deporte escolar**

- Se mantienen los entrenamientos de deporte escolar. En espacios deportivos interiores no deberá superarse las agrupaciones de 4 personas y en espacios exteriores, agrupaciones de hasta 6 personas.
- Siguen suspendidas las competiciones.
- Es preceptivo el uso de mascarilla. En instalaciones deportivas, únicamente queda exceptuado su uso en piscinas y en los momentos extraordinarios de actividad física intensa en exteriores.
- No pueden utilizarse los vestuarios y duchas. Quedan exceptuadas las piscinas, donde se permite el uso de vestuarios con una ocupación del 35% de su aforo máximo y la utilización de duchas, siempre que sea individual. En estos casos, el uso de la mascarilla será obligatorio constantemente salvo en el momento de la ducha.